## 4.- LAN MERKATUA

2006. urteaz geroztik lan merkatuak beheranzko hazkunde tasak izan ditu biztanleria okupatuan, nahiz eta 2008ra bitarteko biztanleria aktiboaren hazkunde tasak baino handiagoak izan. Aurten inflexio puntua izan da: biztanleria okupatua %0,1 hazi zen eta biztanleria aktiboa, aldiz, %0,9. 2009an bi tasak negatiboak dira: -%4,4 biztanleria okupatuaren hazkundea eta -%1,2 biztanleria aktiboarena. 2010eko lehen seihilekoan, langabezi tasa %7,1 da zen, biztanleria aktiboa %0,5 jaitsi baita eta biztanleria okupatuak are gehiago murriztu baita (-%1,5).

Autonomia Erkidegoan 2009an indarrean izan diren hitzarmen kolektiboetan izenpetutako **soldata igoerak** 2008koak baino txikiagoak izan dira. 358 hitzarmen izan ziren indarrean 2009. urtean, aurreko urtean baino 110 gutxiago. Batez besteko soldata igoera %2,66 izan da (%4,81 2008an), 1,9 puntu gehiago Estatuko eta Gipuzkoako 2009ko kontsumo prezioen indizea (KPI) baino (%0,8) eta 1,7 puntu gehiago EAEkoa baino (%1,0). 2010. urteari buruz (abuztura arte) eskura dugun datuak erakusten du %1,69ko igoera dagoela eta, 2008koaren azpitik badago ere, nabarmen gainditzen duela oraindik KPI.

Datu estatistikoen arabera, batez besteko **biztanleria okupatua** 307.700 pertsonakoa izan da urteko lehen sei hilabeteetan. Aurreko urteko epealdi bereko batez bestekoarekin alderatuta, 4.600 lanpostu gutxiago daude, hau da, %1,5eko murrizpena urte batetik bestera.

## 4.- MERCADO DE TRABAJO

El mercado laboral, desde 2006 presenta una población ocupada con tasas de crecimiento decrecientes aunque superiores a las tasas de crecimiento de la población activa hasta 2008. Este año marca un punto de inflexión: la población ocupada aumentó el 0,1%, mientras que la población activa creció un 0,9%. En 2009 las dos tasas son negativas, -4,4% la tasa de crecimiento de la población ocupada y -1,2% la de la población activa. En el primer semestre de 2010 alcanzamos una tasa de paro del 7,1%, debido a que la población activa disminuye el 0,5% y la población ocupada tiene una disminución mayor (-1,5%).

Los **incrementos salariales** firmados en los convenios colectivos en el ámbito de la Comunidad Autónoma con efectos económicos a lo largo de 2009 han sido menores que en 2008. El número de convenios con efecto en el año 2009, ha sido de 358, en total 110 menos que el año anterior. La media de aumento salarial se situó en el 2,66% (en 2008 fue del 4,81%), tasa que supera en 1,9 puntos el IPC de 2009 del Estado y Gipuzkoa (0,8%) y en 1,7 puntos el de la CAPV (1,0%). El dato disponible de 2010 (hasta agosto), muestra una subida del 1,69%, inferior a la de 2008, pero muy superior al IPC.

Los datos estadísticos muestran una media de **población ocupada** en el primer semestre del año de 307.700 personas. Comparándolo con la media del mismo periodo del año anterior hay una disminución de puestos de trabajo de 4.600 personas, lo que supone una disminución interanual del 1,5%.

**4.1. taula-. Biztanleria okupatua / Cuadro 4.1.- Población Ocupada**

| KONTZEPTUAK<br>CONCEPTOS | 2009<br>1. seih./1er sem. (*) | 2010<br>1. seih./1er sem. (*) | Dif. abs.<br>Dif. Abs. | Dif. (%)<br>Dif. en % |
|---|---|---|---|---|
| Biz.okup. guzt. / Total P.Ocupada | 312,3 | 307,7 | -4,6 | -1,5 |
| Gizonezkoak / Varones | 172,5 | 171,6 | -0,9 | -0,5 |
| Emakumezkoak / Mujeres | 139,9 | 136,1 | -3,8 | -2,7 |
| 16-24 urte / 16-24 años | 15,9 | 13,3 | -2,6 | -16,1 |
| 25-44 urte / 25-44 años | 176,7 | 171,0 | -5,8 | -3,3 |
| > 45 urte / > 45 años | 119,7 | 123,5 | 3,8 | 3,2 |
| Lehen sektorea / Primario | 1,5 | 2,1 | 0,7 | 44,8 |
| Industria / Industria | 87,7 | 84,9 | -2,8 | -3,2 |
| Eraikuntza / Construcción | 23,8 | 22,2 | -1,6 | -6,7 |
| Zerbitzuak / Servicios | 199,4 | 198,6 | -0,9 | -0,4 |

Iturria / Fuente: EUSTAT.

(*) Lehen sei hilabeteetako batez bestekoa / Media de los seis primeros meses(Pertsonak milakotan / Personas en miles)

**Sexuaren arabera** azteruz gero, murrizpen hori batez ere emakumeengan gertatu da: 3.750 emakume okupatu gutxiago, 850 gizon okupatu gutxiagoren aldean.

**Adin taldeen arabera**, beheko adinen tarteetan murrizpena gertatu da; 45 urtetik gorako adin tartean kopurua handitu da. 25 eta 44 urte bitarteko taldea jaitsi da gehien termino absolutuetan, eta 5.750 okupatu gutxiago daude, hau da, -%3,3 da urtearteko tasa. Adinik txikieneko tartea da kopuruz gutxien jaitsi dena, zehazki 2.550 pertsona gutxiago, baina murrizpen portzentualik handiena izan du (-%16,1). 45 urtetik gorakoen tartean 3.800 pertsona gehiago daude okupatuta, eta urtearteko bariazioa %3,2 da.

Biztanleria okupatuaren **sektoreen araberako analisian**, murrizpena orokorra da, salbu lehen sektorean.

Zerbitzuen sektorean, 850 langile gutxiago daude (-%0,4), eta sektore horrek murrizpen txikiena izan du kopuruan nahiz portzentajean.

Industria sektorean (2.800 langile gutxiago daude, hau da, -%3,2) galdu da enplegu kopururik handiena. Eraikuntzaren sektorean 1.600 okupatu gutxiago daude, eta urtearteko bariazio tasa -%6,7 da, hau da, galera portzentualik handiena da. Lehen sektorea ekitaldiko salbuespena da, 650 lanpostu sortu baitira (+%44,8).

Analizando **según el sexo**, esta disminución se ha dado principalmente en las mujeres: 3.750 mujeres ocupadas menos frente a 850 varones ocupados menos.

Por **grupos de edad**, hay disminución en los dos tramos de edades inferiores, mientras que el tramo de edad superior a 45 años aumenta en número. En el grupo de 25 a 44 años es el que más disminuye en términos absolutos, hay 5.750 ocupados menos, lo que supone una tasa interanual del -3,3%. El tramo de menor edad es el que menos disminuye en número, concretamente en 2.550 personas, registrando, sin embargo, la mayor disminución porcentual (-16,1%). El tramo de mayores de 45 años recoge 3.800 personas más ocupadas, con una variación interanual del 3,2%.

En el **análisis sectorial** de la población ocupada el descenso es generalizado, salvo en el sector primario.

En el sector servicios hay 850 ocupados menos (-0,4%), y es el sector con menor retroceso tanto en número como en porcentaje.

El sector industrial, con 2.800 trabajadores menos (-3,2%), es el sector que más empleo ha perdido en número. El sector de la construcción, con 1.600 ocupados menos ha obtenido una tasa de variación interanual del -6,7%, que representa la mayor pérdida porcentual. El sector primario es la excepción del ejercicio, ya que ha ganado 650 empleos (+44,8%).

**4.2. taula.- Biztanleria aktiboa**
**Cuadro 4.2.- Población Activa**

| KONTZEPTUAK<br>CONCEPTOS | 2009<br>1er sem. (*) | 2010<br>1er sem. (*) | Bar. Abs.<br>Dif. Abs. | Bariaz. (%)<br>Dif. en % |
|---|---|---|---|---|
| Aktiboak, guztira / Total Activos | 332,8 | 331,1 | -1,7 | -0,5 |
| Gizonezkoak / Varones | 185,2 | 185,2 | -0,1 | 0,0 |
| Emakumezkoak / Mujeres | 147,6 | 146,0 | -1,7 | -1,1 |
| 16-24 urte/ 16-24 años | 18,9 | 16,6 | -2,3 | -12,2 |
| 25-44 urte / 25-44 años | 190,0 | 184,5 | -5,5 | -2,9 |
| > 45 urte / > 45 años | 123,9 | 130,0 | 6,1 | 4,9 |

(Pertsonak milakotan / Personas en miles)
Iturria / Fuente: EUSTAT.
(*) Lehen sei hilabeteetako batez bestekoa / Media de los seis primeros meses

2010eko lehen sei hilabeteetan, **biztanleria aktiboak** murrizpena izan du aurreko urteko epealdi berberaren aldean: 1.700 pertsona gutxiago (-%0,5). Sexuen arabera: gizonak mantendu egin dira eta emakumeak, aldiz, %1,1 jaitsi dira.

**Adin taldeen arabera,** biztanleria okupatuarekin gertatu bezala, adi txikiagoko bi tarteetan gertatu da murrizpena; gazteenen tartean jaitsi da gehien portzentajea (-%12,2). Tarteko segmentuan (25 - 44 urtekoak) izan da jaitsiera handiena termino absolutuetan: 5.500 pertsona gutxiago (-%2,9). Azkenik, adin handieneko taldeak –45 urtetik gorakoak– 6.100 pertsona irabazi ditu (-%4,9) eta salbuespena izan da.

Biztanleria aktiboa biztanleria okupatua baino proportzio txikiagoan murriztu denez, **langabetuen kopuruak** gora egin du. Aztertutako epealdia hartu eta aurreko urteko denboraldi berberarekin alderatuz gero, ikusten da 2.900 langabetu gehiago daudela, hau da, -13,9%o bariazio tasa izan da. Horren ondorioz, langabezia tasa %7,1ean geratu da, puntu portzentual bat gehiago 2009ko lehen seihilekoan izandakoaren aldean.

La **población activa**, a lo largo de los seis primeros meses de 2010, respecto al mismo periodo del año anterior, ha disminuido, concretamente en 1.700 personas (-0,5%). Por sexos: los varones se mantienen, mientras que las mujeres han disminuido un 1,1%.

**Por grupos de edad**, al igual que con la población ocupada, hay disminución los dos tramos de menor edad, siendo el segmento de los más jovenes el que mayor descenso porcentual experimenta (-12,2%). El segmento intermedio (de 25 a 44 años), es el que más disminuye en términos absoluto, 5.500 personas menos (-2,9%). Por último, el grupo de mayor edad, a partir de 45 años, ha marcado la excepción, ya que gana 6.100 personas (+4,9%).

Al haber disminuido la población activa en menor proporción que la ocupada, el **colectivo de parados** aumenta. Para el periodo estudiado y comparándolo con igual periodo del año anterior, la población parada aumenta en 2.900 personas, con una tasa de variación del 13,9%. Por ello, la tasa de paro se ha situado en el 7,1%, un punto porcentual superior a la tasa correspondiente al primer semestre de 2009.

**4.3. taula.- Langabetuak**
**Cuadro 4.3.- Población Parada**

| KONTZEPTUAK CONCEPTOS | 2009 1. seih./1er sem. (*) | 2010 1. seih./1er sem. (*) | Bar. Abs Dif. Abs. | Bar. (%) Dif. en % | Langabezia tasa (%) Tasa de paro % (1) | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 2009 1er sem. (*) | 2010 1er sem. (*) |
| Langabeak,guztira/Total Parados | 20,5 | 23,4 | 2,9 | 13,9 | 6,2 | 7,1 |
| Gizonezkoak / Varones | 12,8 | 13,6 | 0,8 | 6,3 | 6,9 | 7,3 |
| Emakumezkoak / Mujeres | 7,8 | 9,8 | 2,1 | 26,5 | 5,3 | 6,7 |
| 16-24 urte / 16-24 años | 3,0 | 3,3 | 0,3 | 10,0 | 15,9 | 19,9 |
| 25-44 urte / 25-44 años | 13,3 | 13,6 | 0,3 | 2,3 | 7,0 | 7,4 |
| > 45 urte / > 45 años | 4,2 | 6,5 | 2,3 | 54,8 | 3,4 | 5,0 |
| 1. enplegua / 1er empleo | 1,2 | 0,2 | -1,0 | -82,6 | 5,9 | 0,9 |

(Pertsonak milakotan / Personas en miles)
Iturria / Fuente: EUSTAT.
(*) Lehen sei hilabeteetako batez bestekoa / Media de los seis primeros meses
(1) Langabezia tasak biztanleria langabetua eta biztanleria aktibo osoa erlazionatzen ditu. Lehen enpleguari dagokion laukian, ordea, inoiz lan egin ez duen biztanleria langabetua eta langabetu kopuru osoa jartzen dira erlazioan.
(1) La tasa de paro relaciona la población parada frente a la población total activa salvo la casilla correspondiente al primer empleo que relaciona la población de primer empleo frente al total de parados.

**Sexuen arabera**, langabetu kopuruak gora egin du bietan, baina batez ere emakumeen artean: langabetuen artean gizonezkoak 800 gehiago dira (%6,3) eta emakumezkoak 2.100 gehiago (%26,5). Halere, oraindik ere gizonezkoen langabezi tasa handiagoa da emakumezkoena baino (%7,3 eta %6,7, hurrenez hurren, 2009an gizonezkoen okupazioa asko murriztu baitzen.

**Adinen arabera,** talde guztietan gehitu da langabetuen kopurua; 45 urtetik gorakoen segmentua handitu da gehien kuantitatiboki (2.300 langabetu gehiago) eta portzentualki (%54,8). Adin txikiagokoen taldea eta bitarteko taldea 300 pertsona gehitu da, nahiz eta urtearteko tasak desberdinak izan (%10,0 lehenak eta %2,3 bigarrenak).

**Langabezi tasari** dagokionez, adin handiagokoen tarteak portzentajerik txikiena izaten jarraitzen du: biztanleria aktiboaren %5,0. Bigarren tasa txikiena bitarteko adina dutenen taldeari dagokio, eta %7,4ko langabezi tasa izan du, hau da, hiru dezima portzentual handiagoa kopuru osoaren %7,1 baino. Azkenik, gazteenen taldeak langabezia tasarik handiena izaten jarraitzen du: biztanleria aktiboaren %19,9.

**Lehen enpleguaren** apartatuko langabezia tasak inoiz lan egin ez duen biztanleria langabetua eta biztanleria langabetu osoa erlazionatzen ditu. Apartatu hau 1.000 pertsona jaitsi da, hau da, 2009ko lehen seihilekoan zeudenen %83,3; batez beste 200 pertsona bakarrik geratu dira egoera horretan. Haien langabezi tasa askoz txikiagoa da langabezi tasa osoa baino: %0,9.

Analizando **por sexos**, el número de parados aumenta en ambos, sobre todo entre las mujeres: los varones aumentan en 800 personas (un 6,3%) y las mujeres en 2.100 personas (un 26,5%). Sin embargo, la tasa de paro masculina sigue siendo superior a la femenina (7,3% frente a 6,7%, respectivamente), debido a la gran caída en la ocupación masculina que se produjo en 2009.

**Por edades**, todos los grupos aumentan su número de parados, siendo el segmento de mayores de 45 años el que más aumenta tanto cuantitativa como porcentualmente (2.300 parados más y un 54,8%). El grupo de menor edad y el intermedio aumenta en 300 personas, si bien con tasas interanuales distintas (10,0% los primeros, 2,3% los segundos).

Con respecto a la **tasa de paro**, el segmento de los de más edad sigue teniendo el porcentaje más bajo, situándose en el 5,0% de la población activa. La segunda tasa menor corresponde al colectivo de edades intermedias que presenta un paro del 7,4%, tres décimas porcentuales superior al 7,1% del total. Por último, los más jóvenes siguen obteniendo la tasa de desempleo más elevada al ser el 19,9% de la población activa.

La tasa de paro referente al apartado de **primer empleo** relaciona la población que está en paro y nunca ha trabajado con el total de la población parada. Este apartado ha disminuido en 1.000 personas, el 83,3% de los que existían en el primer semestre de 2009, quedando en esta situación una media de 200 personas. Su tasa de paro es muy inferior a la tasa de paro total: 0,9%.